

Omenaldi hunkigarria gure erretiratuei



Ekainaren 7an omenaldia egin zitzaizen erretiroa hartu duten gure kideei.

Guztion arteko adiskidetasun giroa izan zen nagusi. Aspaldi ikusi gabeko kideak ikusteko aukera zela tarteko, une hunkigarri asko izan ziren.

Jarduera hasteko, ongietorria eta aurkezpena egin ziren Taldeko auditoriumean. Iñaki Gabilondo zuzendari nagusiak eta Raul Garcia lehendakariak ULMA Taldearen gaurko egoeraren berri eman zuten, gizarte eta enpresa arloari dagokienez. Bisitak egin zituzten Negoioetara, eta han, enpresaren bilakaera zein izan den ikusi ahal izan zuten. Halaber, oraindik lanean ari diren kideak agurtzeko aukera izan zuten.

Amaitzeko, bazkaria izan zen Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Han, hainbat ekintza egin ziren: ULMAko erretiratuen omenezko aureskua, Raul Garcia lehendakariaren hitzaldi laburra, horretarako argitaratutako bideoa, losu Igartuaren bertsoa (ULMA Construction), Aiko Taldearen emanaldia eta oroigarrien banaketa.

Azken batean, giro ederra izan zen eta egun bikaina erretiroa hartu duten gure kideentzat. Dagoeneko 2022ko ekainaren zain daude, berriz elkartzeko.

Lekukotzak

MANU GOROSPE - Erretiroduna



“Egun zoragarria izan zen, ezin hobeto antolatutakoa. Gainera, benetan hunkigarria, adiskide zaharrek elkartzeko aukera izan genuelako, eta oroitzapen ahaztezinak gogorazi genituelako. ULMA Taldeak izandako bilakaeraren eta Negoioek oro har gaur egun duten egoera onaren berri jasotzea ere interesgarria izan zen. Mila esker guztioi jardunaldia antolatzeagatik! Ahaztezina izan zen, eta 3 urte barru errepikatzeko asmoz nago. Eskerrik asko”.

FIDEL AZPIROZ - Erretiroduna

“Emozio bereziz betetakoa bihurtu zitzaidan ULMAko langile erretiratuen omenezko jardunaldia, lehenenik, Oñatiruntz abiatuta ibilbideko oroitzapenak burura, Oñatiko topaldian lankide ohiez inguratuta, aspaldiko lankide guztiei agurra luzatu nahian, motz gelditzen, ezin denekin egon, denbora nahikorik ez bakoitzarekiko jakinmina asebetetzeko, Aukezpenean ULMA Taldeko kooperatiben eguneroko jarduna eta proiektu berriak ezagutzean sorrarazten zidaten biziberritzeko ilusioa barneratu nahiak, beste garai batzuetan bizitako sentipen ugari sorrarazi zizkidan barne muinetan. Eskerrak, hamaiketakoak eta bazkariak, eman zigun tarterik, entzundakoak eta lantokian ikusitakoak sentiarazi zizkidaten guztia barneratzeko, giro aparteko lagunarteko solasaldi ezin hobearen erdi-erdian urte luzeetako nekeari errekonozimendu zintzoa eta lehiala bizi izan genuen eta elkarren arteko bizi pozak adierazteko, bertso eder eta mamitsuak kantatuz amaiera eman genion”.

JUANJO IZA - Erretiroduna



“Egun zoragarria izan zen niretzat. 6 urtean ikusi gabeko lagunekin orduak eta orduak partekatu ahal izan nituen. Negoioarekin ere zur eta lur geratu nintzen, enpresa utzi dudanetik aurrerapauso handiak eman baititu, nola produktuari dagokionez, hala pertsona zein erakundeari dagokienez. Bazkariarena ere ideia bikaina izan zen, eta oso ondo egon zen, nahiz eta, beti bezala, taldeak osatuta zeuden. Zalantzarik gabe, horrelako beste ekimen bat antolatuko balitz, hantxe izango naiz”.

